



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN JASOTZEN DIREN LAN ETEKINEN GAINEAN EGIN BEHARREKO ATXIKIPENEN EHUNEKOAK ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Bat etorritz xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, azaroaren 21era arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Batzar Nagusietan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifa aldatzen duen foru arau proiektu bat izapidetzen ari da.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Egokitzea lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifaren aldaketari, baldin eta azkenean Batzar Nagusietan onesten bada.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa eta egokia da aldaketa egitea, atxikipenaren ehunekoak egokitzeko, hala behar balitz.
HELBURUAK	Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago beste aukerarik zergaren oraingo egituraren arabera.